

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

63/2020 Mozioa, urriaren 16koa, Arabako eskola kirola COVID-19ren aurrean bermekin egiteari buruz

Arabako Batzar Nagusi hauetako Kultura eta Kirol IX. Batzordeak, 2020ko urriaren 16an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

63/2020 Mozioa, urriaren 16koa, Arabako eskola kirola COVID-19ren aurrean bermekin egiteari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala Eskola Kiro-laren Euskal Batzordearen baitan koordinatzen COVID-19aren aurrean Jarduteko Arau Orokorrak al-dian-aldian eguneratzea, zeinak aplikagarri diren hiru lurraldeetako 2020-2021erako eskola kiroleko programetan eta zeinak balioztatu dituzten osasun-aginteez.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala babesa, aholkua eta laguntza ematen ikastetxeei, gurasoen elkarteei eta kirol klubei era egokian mol-datu ditzaten COVID-19aren aurrean Jarduteko Arau Orokorrak eta, halaber, argitu ditzala izan ditzaketen zalantzak edo eraman ditzala aipatutako Euskal Batzordera bertan tratatzeko et osasun eta hezkuntza arloko aginteez ahalik eta arinen argitzeko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote zaindu dezala arau horien aplikazioak ez duela inolako diskriminaziorik edo desberdintasunik ekartzen kirola antolatzeko eta egiteko orduan ikastetxe, klub eta eskola-umeen artean, edozein dela ere es-kola-kirola egiten den lekua.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala etengabe harremanetan Arabako Lurralde Historikoko gurasoen elkarteekin eta klubekin, kirol-prakti-kak eta COVID-19aren aurrean Jarduteko Arau Orokorrak nola aplikatzen diren al-dian-aldian ebaluatzeko.

5. Arabako Batzar Nagusiek udalei eskatzen diete, euren autonomiari zor dioten begiruneaz, erraztu dezatela ahalik eta gehien euren instalazioak eskola-kirola egiteko erabiltzeko aukera, uneoro bermatuz osasun eta segurtasun protokolo eta irizpideak.

6. Arabako Batzar Nagusiek berretsi egiten dute eskola-kirolak eskola-umeen heziketa in-tegraleko prozesuaren duen balioa, eta tartean diren instituzio eta erakunde guztiei eskatzen diete modu proaktiboan kolaboratu dezatela 2020-2021 Eskola Kiroleko programa garatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 16a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA